

Berrigara

Goitb



Goienera iristeko gertu

MARKIEGI
autoak

Leizeaga 1 (S. Lorentzo Industri Poligonoa)
BERGARA Tf. 943 76 35 09 Faxa 943 76 56 76

FIAT Alfa Romeo



Adi!



Udako Fiat operazioa
500.000 pezetarainoko deskontua
Brava eta **Marea** modeloetan



Ez dago inolako sekreturik gure Nissan 3+2 Excellent, 5 urteko Bermean. Hain gogotik egiten ditugu gure autoak, kilometro mugarik gabe* bost urtez bermatzen baititugu, jakin badakigulako, askoz gehiago iraungo dutela arazorik gabe. Baina, noski, azken orduko ezustekoren bat ere gerta daiteke auto jakin batean eta orduan ikusten da zein ona den gure bezero izatea modalitate honetan. Gutxieneko kostu batekin, edozer gauza gertatuta ere, babestuta egongo zara. Horregatik Nissan auto bat baduzu, zure hiru urteko berme estandarra bost urtera luzatzea eskaintzen dizugu. Abantaila handienak denborarik luzeenean goza ditzazun. Nahiz eta gero, ehun urtean, ez izan inongo arazorik.

Badaziku Zein Den Gure Autoen Bermea
Bost Urtera Luzatzeko Arrazoi Nagusia?

3+2=5+X

Badakigulako askoz gehiago iraungo dutela.

ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA KALEA 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE

*Kamioiak izan ezik. Trade y Cabstar E sartzen dira 300.000 km.ko mugarekin.



GIDATU ETA GOZATU



Kristina Markina / Irakaslea

“Háblame en castellano”

Euskal herritar orok du gizarteko arlo guztietan euskaraz bizitzeko eskubidea, teorian behintzat. Hori horrela izanik, administrazioak bermatu egin beharko liguke euskal herritar orori nahi dugun hizkuntza ofiziala erabiltzeko aukera.

Orain gatozen errealitatera. “Perdona, pero, me puedes hablar en castellano? Es que no entiendo”. Zenbat eta zenbat aldiz jaso ote dugu erantzun hau administrazio publikoko edozein arlotako bulegoren batera deitu dugunean? Aitortu beharra daukat une batez kolokan lagatzen dutela neure burua gisa honetako erantzunek: nire haserrea bere horretan agertuz gero, nik izango ditut galtzekoak; jakina, nik agiri hori behar-beharrezkoa dut eta ditxozko funtzionarioak telefonoa eskegiten badu... Baina, bestalde, ez naiz gustora geldituko ez badizkiot direnak eta bi botatzen. Azkenean, erdiko bidea hartu eta: “beno, ez badaukat beste erremediorik...” moduko esaldi batekin zure haserrea damu bihurtzen den bitartean, funtzionarioa lasai-lasai gelditzen da bulegoko mahaiaren atzean.

Gainera, bizi izan dudanaren arabera, egoera larritzen doala esango nuke, gero eta sarriago beste gisa honetako erantzunak entzun behar izaten ditugun heinean: “¡Háblame en castellano, que no te he entendido nada!” Ziur nago erantzunak gero eta lotsagabeagoak izango direla ez badizkiogu direnak eta bi botatzen dagokion funtzionarioari.

Azkenaldian, salaketa eta aldarrikapen kanpaina erraldoien inguruan estaldioak, plazak eta bestelakoak betetzeko gai garela demostratu dugu. Hauek

guztiak oso beharrezkoak izan daitezkeela onartuz eta, inondik inora gutxietsi gabe, ezin dugu alde batera utzi norbanakoon lana: gure eskubideak urratzen dituzten momentuan guztiok salatu behar dugu egoera eta guztiok exigitu behar dugu geure eskubideen bermatzea, “tokatzen” zaion erakunde, talde, plataforma edo dena delakoaren esku utzi gabe.

Hori izango da, hain zuzen ere, justizia administrazioan euskararen normalkuntza aurrera eramateko Bergaran sortu berri den plataformaren lan-ildotako bat: Bergarako herritar orori bere eskubideak zeintzuk diren gogoraraztearekin batera, gure herriko epaitegian euskarak bizi duen egoera negargarriaren berri ematea, norbanako guztiok eragile bihurtzeko asmoz. Horrela, bakoitzak dagokion funtzionarioari direnak eta bi botatzen badizkio euskaldun ororen eskubideak bete daitezzen, agian egunen batean, ez dugu ez telefonoaren beste aldean, ez leihatilaren beste aldean, ez inon “¡Háblame en castellano!” bezalako erantzun lotsagabeak entzun beharko.<

“Perdona, pero, me puedes hablar en castellano?

Es que no entiendo’.

Zenbat eta zenbat aldiz jaso ote dugu erantzun hau administrazio publikoko edozein arlotako bulegoren batera deitu dugunean?”

barruan



Asier Vitoria

Gureak-eko bailarako zuzendaria

“Bergarako tailerra nahiko ahaztuta izan dugu azken urteotan Gureak barruan”

8.



Maria Romera

Saskibaloietan entrenatzailea

“Eskoriatzan ekipo gaztea daukagu eta helburua kategoriari eustea izango da”

20.



Nagore Irazola

Ileapaintzailea

“Txutxumutxuetaz enteratzeko tokirik aproposenak ez dira illeapaindegixak”

29.

AGENDA ETA ZERBITZUAK



BEKAK

Joseba Jaka.
Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa.
Euskal hizkuntza eta kultura sustatzeko sortutako beka.
Euskaraz idatzitako literatura lanak aurkeztu ahal dira.
Epea: abenduak 19.
Atzerrian ikasteko beka.
Kanpo Arazoetarako Ministeritza.
Goi-mailako tituluak. Udan edo ikastaroan zehar. Italia, Eskozi, Portugal, Belgika, Irlanda eta beste herrialdeetan. Hainbat epetan.

IKASTAROAK

Egailan.
Hainbat arlotako ikastaroak.
Lanbide hastapenerako ikastaroak.
Donostiako Udala. Eskolatu gabeko 16 eta 21 urte bitartekoentzat.
Ikastaroak: sukaldari edo merkataritza laguntzaile, iturgintza edo zurgintza metalikoa.
Epea: urriak 13.
Zinema ikastaroa.
Sarobe Arte Eszenikoen Zentrua.
Urnieta. Epea: irailak 29.
Interbentzio komunitarioa.
HZ Zerbitzuak. Graduadondoko ikasketak. Epea: urriak 16.

SARIAK

Martin Ugalde Ipuin Saria.
Andoaingo Udala. 10 eta 17 urte bitarteko gazteentzat. Epea: urriak 11.

LANA

Antzerki eta zinemako teknikariak.
Donostiako Udala. Unibertsitate Diplomatura, LH 3 edo baliokidea; euskara. Epea: urriak 3.
Sukaldaritzako 2 laguntzaile.
Tolosako Udala. Eskola; jakien manipulatuak karneta, Yurreamendi egoitzarako. Epea: urriak 3.
Mekaniko zerbitzburua.
Debabarreneko Mankomunitatea. LH 2, Goi batxilergo edo baliokidea; C2 gidatzeko baimena. Epea: urriak 7.
Suhiltzaile-gidaria.
LH1 edo baliokidea. C eta BTP gidabaimenak. Epea: urriak 19.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak
Telefonoa: 943 77 91 57
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00
Larunbata: 09:30-13:30

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

Farmaziak

Eguakitza 29:
MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.
Zapatua 30:
CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.
Domeka 1:
CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.
Astelehena 2:
PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.
Martitzena 3:
GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.
Eguaztena 4:
ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.
Eguena 5:
MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Ogia

Domeka 1: Mizpildi.



Jone Albeniz
29an 8 urte.
Urte askotarako!
Amama.



Manez Moreno
29an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.

zorion agurrak



Mireia Iturrospe
29an 9 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Irati Bretaña
4an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Lander.



Maria Cordero
4an 6 urte.
Urte askotarako!
Aitona-amonak eta etxekoak.



Endika Cabo
1ean 3 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta bizilagunak.

jaiotakoak

BERGARA

Onatz Gutierrez Aranzabal
Irailak 17
Narrea Arenaza Bujanda
Irailak 20
ANTZUOLA
Nagore Otadui Aristi
Irailak 8
Maidier Murua Mauleon
Irailak 11



Leire Iparragirre
29an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nerea Aginagalde
30ean 2 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta, batez ere, Mikel.



Xabier Arrizabalaga
2an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Hodei Aranguren
3an 15 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Hurrengo alean, **urriaren 6tik 12ra** bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu.

hildakoak

BERGARA

Maria Gloria Etxaniz Inza
Irailak 22, 62 urte
Juan Gisasola Bastarrika
Irailak 24, 83 urte
Arantxa Iza Garmendia
Irailak 24, 71 urte
Jose Antonio Kortabarría Etxezarreta
Irailak 25, 45 urte
Inazio Unamuno Aristegi
Irailak 25, 74 urte
Angeles Eguren Agirrezabal
Irailak 26, 81 urte
ANTZUOLA
German Martinez Luengo
Irailak 22, 87 urte

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirrek emandako informazioa

San Juan auzoan

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Irailak 21, eguena	28 °C	7 °C	—
Irailak 22, eguakitza	32 °C	8 °C	—
Irailak 23, zapatua	32 °C	9 °C	—
Irailak 24, domeka	20 °C	14 °C	—
Irailak 25, astelehena	32 °C	14 °C	—
Irailak 26, martitzena	25 °C	12 °C	1,4 l/m ²
Irailak 27, eguaztena	28 °C	14 °C	—

ESKER ONA

Juan
Gisasola Bastarrika

Bergaran hil zen
2000ko irailaren 24an,
83 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Jose Antonio
Kortabarria Etxezarreta

Bergaran hil zen
2000ko irailaren 25an,
45 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko sendikoen izenean.*

*Eskelak, urteurrenekoak eta
eskerzak eguazten eguerdira arte
hartzen ditugu.*




Ainhoa Pardina
2an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ainhoa Ugarte
1ean urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Unai Arrieta
5ean urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Gorka Guisado
1ean 9 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Dabid.



Ane Txintxurreta
2an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Mikel Larrañaga
1ean 30 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Peio Irizar
1ean 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Marina Retolaza
3an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

BERRI-BERRIA

1918an zabaldutako denda,
orain berriztuta, zure zerbitzura.

Zatoz ikustera!

Gracian

Usaindegia - Mertzeria

Bidekurutzeta 6 Tf. 943 76 10 25

ANTZERKIA

► **"Don Abili en el Olimpo"**, Valenti Piñoten eskutik, gaur, eguakitza, 22:30ean Elorrioko Arriolan. Hilaren 6an, eguakitza, ordu eta toki berean, **"El florido pensil"**, Tanttaka taldearekin.

ERAKUSKETAK

► **Eluska Zabaloren** margoak Nahikarin.

► **Azuren** argazkiak Infernukua tabernan.

LEHIAKETAK

► **Oñatiko Garapen Agentziak** urtebeterako beka bat emango du herrian bidezidorre buruzko proiektu bat garatzeko. Argibideak 943 78 34 53 zenbakian. Izen-ematea astelehenera arte zabalik.

► **Soraluzeko bertso paper lehiaketa.** Bi maila bereiztuko dira: 16 urtetik beherakoak eta 16 urtetik gorakoak. Lanak aurkezteko epea urriaren 20ra arte zabalik. 943 75 13 04.

► **Gazteak eta Arrazakeria XI. Argazki Lehiaketa.** Debagoieneko 14-18 bitarteko gazteei eta 19-35 urte bitarteko edozeini zuzenduta. Jorratu beharreko gaia gazteak eta arrazakeria izango da. Zuribeltza zein koloreko kategoriak bereiztuko dira eta

KONTZERTUA

Kiko Veneno

- Bihar, zapatua, irailak 30, 22:00etan
- Jam aretoan
- Sarrera: 2.300 pezeta aurrez eta 2.500 takilan

Jam aretoaren sorreraren laugarren urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, bihar, zapatua, Kiko Veneno (Figueres, 1952) kantari ospetsuaren bisita izango dugu. 1977 aldera Veneno taldearekin (izenburu bereko diskoak harrera bikaina izan zuen garai hartan) ezagutzera eman zenetik, ibilbide luzea egin du Kiko musika munduan, flamenkoa eta pop-rocka modu bikainean uztartuz. 1982. urtean bere lehenbiziko diskoa plazaratu zuen: "Sere mecanico por ti". Orduetik, besteak beste, "Pequeño salvaje", "Echate un cantecito", "Esta muy bien eso del cariño" eta "Punta Paloma" diskoak kaleratu ditu. 1998an "Puro veneno" lana heldu zen, Juan Perro, Albert Pla, Andres Calamaro edo Raimundo Amador beraren partaidetzarekin.

1992an "Echate un cantecito" lanarekin izugarrizko arrakasta lortu zuen eta flamenko berriaren erreferentzia nagusietakoa bilakatu zen Kiko Veneno. Bihar, azken diskoko abestiak aurkezteaz gain, bere abesti ezagunenak eskainiko ditu Jamen. Berarekin batera, Raul Rodriguez

(gitarra flamenkoa eta koroak), Juan Ramon Carames (baxua), Charly Cepeda (gitarra elektrikoa), Jimmy Gonzalez (bateria) eta Jose Loreto (koroak, pandereta) izango dira Amilagako eskenatokian.

Aurretik, Arde Asia Barakaldoko taldea arituko da telonero gisa. Hilargi Records diskaetxearen eskutik, "Abril" diskoa kaleratzeaz dira eta pop-rock fina lantzen dute. Los Enemigos edo Doctor De-seo taldeen eragina aitortu izan dute.



Kiko Veneno.

lanak aurkezteko epea urriaren 11n bukatuko da. Argibideak: 943 77 00 65.

IKASTAROAK


► **Beartek** antolatuta, margo ikastaroa urritik aurrera Boluko

lokalean, martitzen arratsaldeetan. Argibideak 656 72 44 49 zenbakian.

► **Udaleko Gizarte Ongizate Sailak** 18 urtetik gorakoentzat bi ikastaro martxan jarriko ditu: mekanika eta elektrizitatea batetik eta disei-

nu eta patroigintza bestetik. Argibide gehiago 943 76 91 24 edo 943 76 91 25 telefono zenbakietan.

► **Yoga ikastaroa** Antzuolan. Interesatuak Antzuolako liburutegian eman dezakete izena. 943 76 60 62 (Mari Kontxi).



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

IBARGYREN PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

► **Moises Azpiazu** dantza taldeak hurrei zuzendutako dantza ikastaroak antolatzen ditu. Era berean, helduendako ikastaroak ere izango dira zapatuetan. Argibide gehiago 943 76 15 40 zenbakian.

DEIAK

► **Mendia Bizirik** taldeak urria-azaro bitarteko asteburu batzuetarako hegaztien mundua ezagutu nahi dutenentzat oinarriko zenbait ekitaldi antolatatu ditu, urriaren 6an, 7an, 21ean eta azaroaren 4an. Asier Sarasua ornitologo eibartarra izango da jardunaldien ardura-duna. Izen-ematea (800 pezeta) eta argibideak Pol-Poleko bulegoan (943 76 48 51). Plaza mugatuak.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, urriak 4, 18:30ean, Seminarioko lokalean. Bestalde, bailarako batzar orokorra datorren urriaren 8an izango da, Arantzazuko hospederian. Argibideak 943 76 22 36 zenbakian.

► **Azoka ekologikoa** zapatuan, hilak 30, Aretxabaletan, 9:00etatik 14:30 arte, Herriko Enparantzan.

OHARRAK

► **Trasteak** biltzeko kamioia hileko lehen eguaztenean pasatzen da. Beraz, trasteak goizeko 8ak baino lehen atera beharko dira zabor guneeetara.

Erdigunetik kanpoko auzokoek, bezperan eguerdiko ordukata baino lehen abisua utzi behar dute Udaltzaingoa (943 77 91 06) kamioia bertatik pasatzeko.

JAIAK

► **Angiozarko San Migel jaiak.** Gaur, eguakitza, 22:00etan sardina eta saiheski afaria plazan eta ondoren San Migelen zeruratzea. Jarraian **Musutruk** taldearekin dantzaldia.

KINTADAK

► **1948an** jaiotakoan afaria Txuringon irailaren 30ean, 21:30ean. Joateko eta etortzeko urbanoa egongo da. Izen-ematea Euskadiko Kutxan.

► **1961ean** jaiotakoan afaria urriaren 7an. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) Nahikarin edo Dixulan.

► **1947an** jaiotakoan afaria urriaren 21ean Txuringon. Izen-ematea (6.500 pezeta) Euskadiko Kutxan urriaren 14a baino lehen. Osintxura joateko autobusa izango da, 20:30ean Santa Marina ondoan.

► **1978an** jaio eta Mariaren Lagundian euskarazko taldean elkarrekin ibilitakoan afaria urriaren 28an. Izen-ematea urriaren 20ra arte zabalik Arrano tabernan. Afari egunean 20:00etan Pol-Pol tabernan elkartuko dira.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

60 segundos
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Las confesiones del Doctor Sachs

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

60 segundos

Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

Shanghai Kid

Zapatua: 17:00.

Domeka: 17:00.

EIBAR. Unzaga

Woman on top

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Space cowboys

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Pantaleon y las visitadoras

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

El año del caballo

Eguena, zine-kluba: 20:15.

AZKOITIA. Baztartxo

El hombre sin sombra

Eguakitza: 22:00.

Zapatua: 22:00.

Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.

Astelehena: 20:00.



60 SEGUNDOS

Zuzendaria: Dominic Sena.

Aktoreak: Nicolas Cage, Angelina Jolie, Giovanni Ribisi.
▲ 13 URTE

Randal Memphis Raines (Nicolas Cage) izeneko lapurrak izugarriko erratzasuna dauka kotxeak lapurtzeko orduan, horretan ez dauka parekorik. Baina delinkuentzia utzi ondoren, azken lan bat egitera behartuta egongo da bere anaiak arazoak dauzkalako. Oraingoan *Randalek* bere neskalagun ohiaren (Angelina Jolie) laguntza izango du...

LAS CONFESIONES DEL DOCTOR SACHS


Zuzendaria: Michel Deville.

Aktoreak: Albert Dupontel, Marie-France Santoni, Marianne Groves. ▲ 18 URTE

Joan zen urteko Donostiako Zinemaldian zuzendari onenaren saria eta gidoi onenaren eskuratu zituen eta Urrezko Maskorra ere merezi izan zuen hainbat kritikoren iritiz. Herriko mediku bat eta bere kontsultara hurbiltzen diren artean sortzen den erlazioa kontatzen zaigu.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Argitapen honen edizioko laguntzaile:

 **kutxa**

*gizarte-ekintza
obra social*

Aurten, sortu zeneko 25. urteurrena ospatzen dute Gureak tailerrek. Gaur egun Gipuzkoa osora zabaldu badira ere, lehenengo tailerra Bergaran zabaldu zen. Datorren urte amaiera aldera, egoitza berria estreinatuko du Gureak-ek industrialdean.

G. Hogeita bosgarren urteurrena ari da ospatzen Gureak. Zein dira zoriontzeko arrazoi nagusiak?

E. Gureak-ek 25 urte hauetan bidea ireki du. Orain 25 urte gizartea ezberdina zen, eta pertsona ezinduak enpresa zein gizarte mailan integratzeko arazo handiagoak zituzten gaur egun baino. Gureak-ek urte hauetan, Diputazio zein gizarte mailan lan egin du pertsona horiek gizarte zein enpresa normal batean lan egiteko gai direla azaltzeko. Horixe esan nahi nuen bidea ireki dugula esan dudanean.

Bestalde, handitu egin gara, eta hori ere Gureak-en lorpen bat da. Orain 25 urte, 311 pertsonarekin hasi ginen, eta gaur egun 2.498 gara. Horien %90ek ezintasunen bat du, fisiko, psikiko edo sensoriala, eta nolabait, Gipuzkoa mailan dauden 2.200 pertsona ezinduri irteera bat ematen zaie euren bizitzan. Honekin guztiarekin Gureak-en eboluzioa positiboa izan dela uste dut: gero eta jende gehiagori ematen zaio lana, bai gure enpresetan baita bestelako enpresetan ere. Eta bestetik, 25 urte pasatu eta gero, ilusio berberarekin jarraitzen dugu enpresa berriak sortuz. Hauek dira, batez ere, ospatzeko ditugunak.

G. Bergaran zabaldu zenuen lehenengo tailerra.

E. Bai. Seme-alaba ezinduren bat zuten familiek,

ASIER VITORIA

Gureak-eko Debagoieneko zuzendaria

“Bergarako tailerra nabiko ahaztuta izan dugu Gureak bertakook”



Asier Vitoria 26 urteko billabonarrak Debagoieneko Gureak-en ardura du.

eskola bukatu eta irtenbiderik gabe aurkitzen zirela ikusita, Bergarako tailerra sortu zuten. Garai haietatik hona gauza asko aldatu dira. Baina Bergarako tailerra eboluzio txikienetakoa izan duena da. Autokritika gogorra egin beharko genuke, Bergarako lehenengo tailerra izanik, ahaztuta geratu delako. Eta ondorioz, Ber-

“90 lagunendako tailerra, eguneko zentrua eta bulego berriak irekiko ditugu datorren urte amaiera aldera Bergarako industrialdean”

gara eta Antzuolako jende askok Arrasateko tailerrera joan behar izan duelako.

G. Dena den, kokaleku berria aurkitu duzue, industrialdean.

E. Industrialdeko tailer berria irekitzen dugunean, Eibar edo Arrasateko tailerretan dauden bergararrek herrian lan egiteko aukera izango dute. Izan ere, hasiera batean 50 lagunendako tokia egongo da, nahiz eta azken helburua 90 lagunera iritea den. Tailer honetan, automoziorako kableatuak egingo dira beste gauza batzuen artean. Orain dagoen tailerren aldean, bolumen aldetik eta baita lan kalitate aldetik ere jauzi kualitatibo handia emango dugu.

Tailerrea eraikuntza berri batean kokatuko da, Zerrajera zaharreko zentral hidroelektrikoaren ondoan, eta zentrala bera ere erabiliko dugu. Bertan kokatuko dira, dibisioaren bulegoak eta eguneko zentrua.

Eibar, Arrasate, Azkoiti eta Bergarako zuzendaritzak Bergaran zentralizatu-ko dira, aipatutako bulegoetan. Horrela, urteetan eman ez diogun garrantzia eman nahi diogu. Eraikin horretan bertan jarriko dugu eguneko zentroa. 25 urte hauetan Gureak-ek ikusi duen beste gauza bat zera da: hasiera batean oso gazte hasi ziren langileak, gaur egun ez direla horren gazteak, eta euren jubilazio egunak iristen hasi direla.

Hori horrela izanik, pertsona horiei irtenbide bat eman behar zaie. Irtenbidea emateko, eguneko bi zentro ireki ditugu dagoeneko, eta hirugarrena Bergaran jarriko dugu, bulegoekin batera. Bertan aktibitate mistoak egingo dira, manualak eta hainbat irteera, eta bailara osorako zerbitzua eskainiko du, gainera.

B e r g a r a k o OSASUN GIDA

■ **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman)**. Zurradero 6, behea. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak)**. 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala)**. 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak)**. Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel**. Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor**. Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL**. Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA**. Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto**. Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B.** 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia**. Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **LASKURAIN HORTZ KLINIKA**. Boni Laskurain 4, behea. 943 76 56 57 • **TRIPALDI Enrike**. Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETXE, Maria**. Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **HOMEOPATA: SUSANA GANUZA**. Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA**. Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier**. Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 21 62 • **AZPEITIA Irupe**. Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier**. Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana**. Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel**. Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA**. Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE**

Eduarne. Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu**. Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo**. San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

Osasunez bizi izateko!

Udalak Gorlako kantina zaharra botatzeko epea jarriko du

Belatz kantina berria egin zenean kantina zaharra botata egon behar zen. Gainera, ez du bertan egoteko baimenik. Udalak, kantinari irekitako espedienteari jarraiki, botatzeko epea jarriko du, hilabete barru seguruenik.

Astelehenean egindako ohiko plenoan, Gorlako kantina zaharraren espedienteari berriz ekiteko eskatu zuen EH alderdiak erregu eta galderen atalean. Izan ere, Belatz kantina berria egin zutenerako, botata egon behar zuen zaharrak. Belatz, 1996. urteko maiatzean inauguratu zen, eta oraindik ere zaharrak zutik



Hilabete barru, gutxi gorabehera, jakingo da kantina noiz botako den.

dirau. Kontuan hartu behar da, gainera, kantina zaharrak bertan egoteko baime-
nik ez duela.

Plenoan, Victoriano Gallastegi alkateak, espedien-

tea berriz aztertuko dutela azaldu zuen. Bestalde, uda partean, ur eta argi konek-
sioak egin dituzte kantina zaharrean Udalean inongo baimenik eskatu gabe alka-

teak adierazitakoaren araber. Hori horrela izanik, espedientearen fase berri honetan, kantina botatzeko data definitiboa jarriko dela gaineratu zuen asteleheneko plenoan.

Horrez guztiaz gain, Diputazioarekin ere kantina botatzeko konpromezua hartuta du Udalak.

Data oraindik ere zehaztu gabe dago. Espedientea berrikusi egingo da, eta horren ondoren, hilabete barru gutxi gorabehera, jarriko da Gorlako kantina zaharra botatzeko data.

Data jarri eta gero, jakinarazpena bidaliko zaie kantinako nagusiei eta epe bat emango zaie kantina uzteko.

Francisco Javier Garai PSE-EEko zinegotzi berria

Francisco Javier Garai izango da PSE-EEko zinegotzi berria. Garai, bosgarren lekuan aurkeztu zen, sozialisten zerrendan, azken udal hauteskundeetan. Hala ere, bi, hiru eta laugarren postuan dauden Javier Zendoia, Alfonso Zafra eta Maria Begoña Urbistondok postuari uko egin diotenez, Garaik, zerrendako bosgarrenak, hartu du zinegotzi kargua.

Gogoratu behar da, maiatzaren 23an, Alvaro Esparzak, orduko alderdi sozialistako zinegotziak, dimittitu egin zuela. Esparzak orduan adierazitakoaren arabera, "ETAren ingurutik jasotako heriotza mehatxuak" izan ziren kargua uzteko arrazoia. Esan bezala, maiatzean dimittitu zuen, eta ordutik ordezkoa izendatu gabe zeukan alderdiak.



Alvaro Esparzak maiatzaren 23an aurkeztu zuen bere dimisioa.

ARTXIBOA

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09

ARREGI

Eraikuntza
materialak

Biltegia Tellerian, Labegaraletan.
Tf. 943 76 27 93

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimera


Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

San Pedro parrokian premiazko konponketak egiten ari dira

San Pedro parrokiako kanpandorean premiazko konponketa lanak hasi zituzten astelehenean. Erlojuari eusten dion egituran eta kupulako eta kornisetako juntetan egingo dira konponketak. Bestalde, hondatuta dauden bestelako zatiak burdinaz josiko dira.

Lan horiek proiektu orokorrago baten barruan daude. Izan ere, proiektuan, kanpandorrea guztiz berriztea aurreikusten da.

Oraingo hauek, arriskua ekiditeko premiazko lanak dira. Arestian aipatu bezala,



Balaustrada egoera kaskarrean dago argazkian ikusten den bezala.

kanpandorreko obrak joan zen astelehenean hasi ziren, eta hilabete eta erdi iraungo dute. Hala ere, bien bitarte-

an, San Pedro parrokia irekita egongo da.

Gogoratu, uztail hasieran parrokiako inguruak he-

sitzeko erabakia hartu zuela Udalak aparejadorearen eta Udal Museologoaren txostenari jarraituz.

Txostenaren arabera, balaustrada eta pinakuluen egoerak arriskua sor zezaket. Gotzaitegiko adituek, oster, ez zuten arriskurik ikusten; bai, aldiz, kanpandorrearen egoera kaskarra, eta ondorioz, konponketa batzuen beharra. Hori dela eta, orain, lanik premiazkoenak egingo dituzte, eta, oraindik zehaztu gabe da goen arren, gerora, lehen aipatutako proiektu orokragoari helduko diote.

Udalak EUDIMAn jarraituko du

Udal Intsumituen Mankomunitatean sartzeko erabakia berretsi egin zuen Udalak joan zen zapatuan egindako ezohiko plenoan. Izan ere, Euskal Autonomi Erkidegoko Justizia Auzitegiak, Bergarako Udalak Udal Intsumisioen Mankomunitatean (EUDIMA) sartzeko hartu zuen erabakia balio gabetua zuen.

Hori dela eta, EH eta EAko zinegotziek erabakia berresteko mozioa aurkeztu zuten plenoan. Mozioak honakoa adierazten du beste

gauza batzuren artean: Bergarako herritarren ordezkari bezala, euren eginbeharra herriaren interesak defendatzea dela eta Euskal Herriaren etorkizuna libreki erabakitzeko euskal gizarteak duen eskubidearekin bat egiten dutela. Bestetik, Euskal Herria desmilitarizatzeko bidea egiten jarraituz, Udalak EUDIMako estatuak berriro ere onartzen dituela.

EAJ alderdiak ez zuen mozioa onartu. Alkateak EAJren ordezkari gisa esan

zuen, bere alderdiak argi dauka "gizarte desmilitarizatu baten alde egin behar dela lan", baina ez du uste horretarako bide egokiena EUDIMA denik, "bakarrik batzuen izaera militarra salatzaren duelako".

Bigarren sententzia bat ere badu Udalak. Izan ere, Justizia Auzitegiak bertan behera utzi du Udalak EUDIMAn 1998 eta 1999ko kuotak ordaintzeko hartutako erabakia. Plenoaren ostean, kontzentrazioa egin zen San Martin plazan.

Gudari Eguna ospatuzen eguaztenean

Gudari Egunaren barruan Euskal Herri osoan deitutako ekitaldien barruan, manifestazio jendetsua izan zen herriko kaleetan eguazten arratsaldean. Manifestazioan 125 lagun inguru elkartu ziren eta bertan parte hartu zutenek ETAn aldeko eta Euskal Herriko independentziaren aldeko mezuak aldarrikatu zituzten.

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldearen erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



umelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Berrigara

423 zenbakia.
2000ko irailaren 29a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketa: Iban Arantxabal.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkorobereibar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,
Ussoa Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bitor Rodriguez, Alex Ugaldie.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate,
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga, Oñati).

Azaleko argazkia: Maddi Trutxuelo.

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

HAU DA KMK/00

Kilometroak antolatzea tokatu zaigun 2000. urte honetan beti egin eta esaten denetik aurrera-pausu bat ematearen erantzukizuna sentitzen dugu gure ikastolatik. Bizitzaren indarrak erakusten digu geldirik ez gaudela eta aurrera egiten ez dugunean, atzera goazela. Horregatik, ikastolatik Euskal Herriarentzat, bere eskola egiten konprometitu gara, eta gizarte berri bat nahi dugulako, ikasleen aldeko apostua egin beharrean gaude.

Ikasleak, beste leku bat behar du eskolan. Gaur eguneko gizarteak ikaslee-kiko beste jarrera bat eskatzen du. Hezkuntzan lege asko aldatzen dira, baina

zaharkiturik geldituta dauden ohitura gehiegi ditugu oraindik gaurko baloreekin muturka datozenak. Euskalduntasunean gehiago sustraitu behar dugu. Teknika aurrerakoiekin aurrea harra-patu behar dugu. Baina batik bat, ikasleen erronkari erantzun behar diogu gizatasunez, horretarako pertsonala formatuz. Gure herri zahar honek osasuntsu iraun du gaurdaino, egoera arautuen gainetik bizi-indarra ipini duelako. Guk gure gazteei hori erakutsi nahi diegu, geuk eginez.

Eta egiten ari garenarekin pozik eta harro, Kilometroen eskutik adierazten dizuegu guztioi zer den guri dagokigun eraikuntza eta horren inguruan biltzen gai-

tuen indarra. Beraz, urriaren 1ean egingo dugun festa honetan elkarren indarrak batzea besterik ez zaigu falta. Lerro hauen bitartez, gonbitea zabaltzea besterik ez zaigu gelditzen, zuen laguntza eta partehartzerik gabe festa erraldoi hau ez baita ezer izango. Beraz, esana gogoratzea besterik ez da gelditzen: guztiok gonbidatuta zaudete domekan, urriaren 1ean, Azpeitian egingo den Kilometroak 00 festara. Hau da Ikastolaren festa! Hau da euskararen festa! Hau da euskaldunon festa!

Xabier Albizu
Kmk/00

Prentsa arduraduna

tira biraka oihan vega



atrebentzia ezpada


bai, esan!

Zer pentsatzen jatu automobilendako etara ditzuzten matrikula berrixak?



Francisco Guerrero

Ez jat ondo pentsatzen. Izan be, probintzia bakoitzaren ezaugarria izan biharko leuke matrikuliak. Orain arteko moduan ondo zeren.



Haritz Iñurritegi

Ez jat ondo pentsatzen derrigorrez Espainiako ikurra eroan biharra. Uste dot bakoitzak dan tokiko ikurra eroan biharko leukiela.



Matias Izuskiza

Uste dot hemengo seinalaren bat euki biharko leukiela matrikulak. Orain artian moduan ondo zeren.



Francisco Alonso

Normalena nere ustetan, probintzia bakoitzak bere ezaugarria eukitzia da. Berrixak be ezaugarriren bat euki biharko leukie.



Asun Osuna

Orain artekuekin jarraitzia ez jat gaizki pentsatzen, batez be ohittuta garelako. Dana dala, ez dot uste berrixak gaizki darenik.



Maria Jesus Lizarralde

Nahixauko neuke orain artekuekin jarraitzia. Berrixak bihar badie, norberan ezaugarriren bat eroan biharko leukiela uste dot.



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

ALKABIETATIK MATXIATEGIRAKO IRTEERA

Elena Odriozolaren kexa jaso dugu aste honetan BERRIGARAKO erredakzioran. Elenaren arabera, Alkabieta (kanposantu ondolik) Matxiategirako irteeran bisibilitate eskasa dago gidarientzat eta istripuren bat gertatzeko arriskua nabaria da. Bere esanetan, Alkabieta iteterakoan, alde batean zein bestean kotxeak aparkatuta daudenez, ez da ikusten Matxiategitik kotxerik datorren. Gainera, askotan, bigarren iladan aparkatuta izaten dira kotxeak Matxiategin, eta orduan, bisibilitatea are eta eskasagoa da. Horren aurrean, dagokionak beharrezko neurriak hartzea eskatu nahi du Elenak, bestelako bidegurutzetan egoten diren moduko ispiluak jarritz, esate baterako.

Eskulan ikastaroa


Noiz:
urriaren 16tik
maiatzera arte

Non:
Kartzela Zaharrean

Ordutegia:
15:30etik 17:00etara
Prezioa urte guztirako:
5.000 PTA Jarduneko
bazkideek;
6.000 gainontzekoek

Matrikula epea:
urriaren 11.

Informazioa:
Jardun elkartearen (Kartzela Zaharra)
943 76 08 19 / 943 76 36 61



Maritxu Kajoi

gauerako
**orrazkera eta
makilajeak**



Illepaindegi mistoa • Estilistak
Espoioia 4. behe. Bergara Tf. 943 76 72 76




adituen esanetan

Ukimenaren garrantzia

Kontaktu fisikoa, behar biologikoa izateaz gain, komunikaziorako tresna ere bada. Bihotzak sentitzen duena eskuek adieraztea oso garrantzitsua da garapen pertsonalerako. Frogatuta dago bost segunduko kontaktu fisikoak indar gehiago duela bost minutuko solasaldi on batek baino. Ukimenaz hitz egitean, larruazalak ari gara. Larruazalak, organo bezala, ukimen estimuluak eta estimulu sensoriaralak jasotzen ditu; sentidu egiten du. Izan ere, garunaren atzetik, larruazala da

organurik handiena eta garrantzitsuenena. Kontakutako fisikoaren beharra jaiotzen garen momentutik hiltzen garen arte edukitzen dugu gizakiok. Elkarren artean ikutzeak, besarkadek eta ferekek berebiziko garrantzia dute, beraz.

Garunaren eskuineko hemisferioak alderdi kreatiboa, sensitiboa edo intuitiboa lantzen du; ezkerreko hemisferioa, ostera, alderdi analitikoaz, logikoz edo intelektualaz arduratzen da.



JOSE LUIS ARMENDIA

Yoga irakaslea eta masajista

“Ongizate emozionala eta autoestimaren oinarria maitasuna da, norberarenganakoa eta besteenganakoa. Horretarako, ukimena oso garrantzitsua da”

Mendebaldeko gizakiok ezkerreko hemisferioa gehiago lantzen dugu, eta, ondorioz, sentsibilitatea galduz doa gure artean. Kontakutako fisikoak bi hemisferioen arteko oreka mantentzea du helburu. Ongizate emozionala eta autoestimaren oinarria maitasuna da, bai norberarenganakoa eta bai besteenganakoa eta hori ukimenaren bitartez transmititu daiteke. Ukimenak aldaketa neuronalak sortzen ditu, emozioekin zerikusi zuzena dutenak. Bigarren munduko gerratearen ostean egindako

ikerketak batzuetan, argi geratu zen heriotza tasa askoz ere baxuagoa zela maitasuneko arreta berezia jasotzen zuten haurren artean. Hitz egiteko gaitasun eza, psikomotrizitate falta edo jendearekiko beldurra ukimena landuz gainditu izan dira. Ukimenarekin afektibitatea azalduz, haurrari segurtasun psikologikoa, konfiantza eta ongizatea ematen diogu. Masaje psikosensitiboan ukimen teknikak landu daitezke.



Kontaktu fisikoaren beharra jaiotzen garen momentutik hiltzen garen arte izaten dugu. ARTXIBOA

bergarako errota

BOLUBARRI (eta II)

Baimea 1894an ematen zaio eta dokumentu horretan interese handiko zerbait aipatzen da: *“Emilia Berroeta anderea jabe duen Bolubarri errota, Bergarako lurretan dagoena, aurreko urtean, 1834an urak igo eta suntsituta geratu zena...”*

Uholde hauek izan ziren inguru hauetan izandako handienak. Ekainaren 30eko goiz eta arratsalde osoan egin zuen euria eta anekdota moduan aipatzen da 1961ean Euskalerrriaren Alde aldizkarian agertzen dena:

“... Beren izatea inoiz izango ez bailitzan San Antonio auzotik zazpi etxebizitza desagertzea eta bertako ermita, auzoari izena ematen diona; Zubiaurren hiru etxe; Martirietan, bost; baita parrokia ere; Zubietan hamabost etxe; Mugertzan bi etxe; zazpi baserri ere uboldeen eraginez suntsituak, zazpi errota, bost lantegi... Guztira, desagertutako eraikinak 47 izan ziren. Hauen artean oraindik paret bat zutik dutenak bama-lau dira, bilabete batzuk bebarko dira normalean erabiltzen diren errota berriz martxan jartzeko; Elgeta, Muzkirizu eta Santa Ana errekekin dabilzan errota txikiak martxan jarri abal izango dira; sei...”

Zerrenda hau apurtutako zubiek Soraluzen gertatutako suntsiketek eta abarrek osatzen dute.

1915eko Gipuzkoako Boletin Ofizialean Bolunbarriko urak erabiltzeari buruz hitz egiten da. Erabilera “Sociedad de Algodonera de San Antonio” moduan agertzen da.

Bolubarri errota Deba ibaiaren urarekin zebilen martxan.

Gaur egun ez dago arrasto zipizik ere. Desagertua dago.

KOKAGUNEA: Bergarako Santo Tomas zubiaren ondoan.

Antxon Agirre Sorondo



Haragi gisatu lehiaketan hirugarren

San Martinetako okela gisatuaren lehiaketa irabazi zuen **Mikel Ariznabarretak eta Xeferino Mondragonek** osatutako bikoteak **hirugarren postua** eskuratu zuen **Lasarteko Okela Egunaren barruan** egindako lehiaketan, joan zen irailaren 17an. Artatse elkarteko ordezkariak beren maila erakutsi zuten berriz ere okela gisatua prestatzerakoan. Epaimahai lanetan, gainera, izen handiko sukaldariak ziren: **Juan Mari Arzak, Martin Berasategi, Luis Irizar, Hilario Arbelaitz, Pedro Subijana, Ramon Roteta** edo **Juan Jose Castillo**, tartean. 15 partaide izan ziren lehian, eta **Gure Ametsako Xabier Ilzarbek eta Pedro Ricok** ere hartu zuten parte. Sari gisa, **Martin Berasategi jatetxean afari edo bazkari bat** egiteko aukera irabazi zuten Mikelek eta Xeferinok. Argazkian, Pello Urzelairkin (eskuman) ageri dira.

Matrikula berriak

Gipuzkoako Trafiko Zuzendaritzak adjudikatu ditu dagoeneko **lehen matrikula berriak** eta herrian ere ikusten dira jadanik zeresan ugari eman duten plakak. Probintzia bakoitzeko bereizgarriaren orde, Europear Batasuneko izarrak agertzen dira ezker aldean, Espainiari dagokion E hizkiaren gainean. Plaka berriak **zaharrak baino zertxobait luzeagoak** dira eta lau zifretako zenbakiarekin batera hiru hizki-tako konbinazioak egingo dira, BBBtik hasi eta ZZZra heldu arte, bokalak eta Ñ eta Q hizkiak kenduta.



San Martinetako zozketa

Itxaso Orbeagoz Gaztelu gertatu zen irabazle San Martinetako ferian **Jose Jabier Igarza, Jose Luis Leturia, Sebastian Imaz, Jon Leturia, Pello Urzelai, Josu Leturia eta Luis Mari Rezola** harakinek, **Xamatx** dantza taldearen eta **Aritzeta** abesbatzaren laguntzaz, antolatutako zozketan. **1.465** zenbakia izan zen zenbaki sari-tua, eta Itxasok San Martinetan antolatutako afari herrikoian erosi zuen boleto irabazlea. Boletoaren jabeak **txerri bat edo 50.000 pe-zeta** eskuratzeko aukera zeukan, eta Itxasok nahiago izan zuen dirua hartzea. Joan zen eguakitzean eman zioten txekia. Esan beharra dago beraren ama, **Mertxe Gaztelu**, bigarren geratu zela okela gisatuaren lehiaketan, **Bittor Lamarianorekin batera**, Uberako **Jaolatz**a elkartearen ordezkari. Argazkian, **Itxaso, Joxe Arrieta** Aritzeta-kidea, **Ibon Unamuno** Xamatzekoa eta **Jon Leturia** harakinaren ondoan. Zorionak!!

LA PUERTA AL INGLES, S. L.

INGELESA

Haurrak

7 eta 10 urte bitartekoak

ASTEAN **3** EGUNEKO TALDEAK

Eguerdian: astelehen, eguazten eta eguenetan

Arratsaldean: astelehen, martitzen eta eguenetan

Hileko kuota: 6.600 pta.

ASTEAN **2** EGUNEKO TALDEAK

Eguerdian: martitzen eta eguakitzetan

Arratsaldean: eguen eta eguakitzetan

Hileko kuota: 4.500 pta.

Helduak

Hasiera maila: Astelehenetik eguenera 18:30etik 19:30era

Hasiera mailaren ondorengoa: Martitzen eta eguenetan 15:00etatik 16:00etara

Oinarrizko maila: Astelehen eta eguaztenetan 15:00etatik 16:00etara

Bitarteko mailaren aurrekoa: Astelehenetik eguenera 18:30etik 19:30era

Bitarteko maila: Astelehenetik eguenera 19:30etik 20:30era

Maila aurreratua: Astelehen, eguazten eta eguenetan 20:30etik 21:30era

Ikasturtearen hasiera, **urriaren 2an**

INFORMAZIOA: Burdiñate 5, Bergara Tf. 943 76 30 01

Ariznoa

gimnasia
erritmiko
taldea



Irailaren 26an gimnasia erritmikoko denboraldia hasi zen. Kirol polit honetan interesatuta dauden 6 urtetik gorako neskek, dei dezatela telefono hauetara informazioa jasotzeko: 943 76 12 84 (Margari) eta 943 76 56 75 (Jabi).

Klaseak BERGARAN: martitzen, eguen eta eguakitzetan. 18:00etan

Boni Laskurain pasealekuko Aranzadi ikastolako gimnasioan.

Klaseak ANTZUOLAN: martitzen, eguazten eta eguenetan

GIMNASIA




Aupa neskek, anima zaitetze! Zuen zain gaude!


Goiena Telebistak dagoeneko prest dauka denboraldi berriko programazioa. Saio berriak eta ez hain berriak, berriztatutako beste batzuekin, astelehenetik eguakitzera bitartean. Asteburuan, berriz, errepikak ikusteko aukeraz gain, umeentzako Jolasplast saioa eskainiko digu debagoiendarroi. Informazioaren eta entretenimendu saioen artean, gustu guztientzako lekua egin dute Goiena Telebistakoek. Musika, albisteak, enpresak, txutxumutxuak, osasuna, kirolak, berriketaldiak, elkarrizketak... Eta hau gutxi balitz, saltsa goxo-goxoak dastatzeko aukera ere eskainiko digu denboraldi berriak.

Marijo Deogracias

GOITB, goienera iristeko gertu



Miren Gonzalez



Haika Aizpurua

Astelehenean bertan ekingo dio neguko denboraldiari Debagoieneko telebistak. Irailean "Berriak" ikusteko aukera izan dugu, baina urriaren 2an, Itxaro Zubillaga itzuliko da "Goienasport" kirol saioarekin. Kirola izango da nagusi ordu erdiz saio horretan, baina gauza guztiak zahartzen direnez, kirol tartearen berriztuta etorriko zaigu.

Hauexek izango dira denboraldi honetan informazioa landuko duten saioak: "Berriak", "Astebete", "Goienas-

port", "Mahai ingurua", "Aurrez aurre", "Alkatearekin berbetan" eta "Ekilan".

Baina gure aisialdia beteko duten saioak ere asko izango dira GOITBn. Egunik egun joanez gero, martitzenero "Xeheberriak", eguenero "Hamaika Magazina" eta eguen eta eguakitzero "Soi-nuz Blai" izango ditugu aukeran. Horrekin batera, astelehenetik eguakitzera GOITBko sukaldaria sartuko gara, jaki eder eta goxoak dastatzeko.

Hemen doakizue GOITBren programazio berria saioz-saio.

GOIENASPORT

• **astelehenero, 21:30ean.**

Goiena Telebistak bailarako kirol taldeen nondik norakoak kontatuko dizkigu astero. Itxaro Zubillagak aurkeztuko du eta lehenengo zatian futbola izango da nagusi, baina saskibaloia, eskubaloia, atletismoa, txirindularitza, xakea, pilota eta beste hainbat kirol ere aztertuko dira. Horrez gain, tarte bereziak egingo dira, hala nola gutxiago segitzen diren kirolei buruzko erreportajeak, bailarako kirolari profesionalekin elkarrizketak eta aspaldiko kirolariei eskainitako tarteak.

ALBISTE AURRERAPENA

• **egunero, 13:30ean.**

Albiste aurrerapenak aurreko denboraldian bezala segituko du: hiruzpalau



albiste eta eguneko egunkarietako argazki adierazgarria erakutsiko dizkigu, eta, gainera, burtsari buruzko informazioa eta eguraldia ere egongo dira.

BERRIAK

• *egunero, 20:00etan, 20:30ean eta 21:00etan.*

Maider osak segituko du "Berriak" tartea aurkezten. Iraileko traza bera izango du albistegi nagusiak: Debagoieneko albisterik nagusienak jasoko dira egunero. Horrez gain, egunero tarte berri bat hasiko dute, orain arte eguazteno egin izan duten bezala. Astelehenean, kirolaren tarteaz Gorka Etxabe arduratuko da; martitzenetan, "Sarean" tartea aurkeztuko digu Alberto Izagirre atxabaltarrak, Interneten inguruan; eguaztenetan, "Solasean" tarteari

eutsiko dio "Berriak"ek, bost bat minutuko elkarrizketak egiten; eguenean, "Ikusmiran" tartean bailarako txokoak ezagutzeko aukera eskainiko digu eta eguakitzetan, berriz ere kirolak hartuko du tarte hori.

ASTEBETE

• *eguakitzero, 21:00etan.*

Egunero "Berriak" saioan jasotako albisteen errebaso honek ere izango du berritasunik denboraldi honetan. Hasteko, aurkezlea berria izango da: Marijo Deogracias. Berarekin batera, beste bi iritzi emaile arituko dira albisteen gainean duten ikuspuntuaz berba egiteko.

ALKATEAREKIN BERBETAN

• *hamabostean behin, eguaztenean, 21:30ean.*

Saioaren helburua da udalak eta herri-tarrak hurbiltzea eta Debagoieneko herri-tarrek aukera izan dezatela euren alkateei entzuteko, telefono bidez galderak egiteko edo hainbat arazoren aurrean iritziak azaltzeko.

Bederatzi herrietako alkateak GOITBko erredaktore buruarekin eta beste bi kazetarirekin batera egongo dira platoan; horietako bat, alkatearen herri berberekoa izango da.

MAHAI INGURUA

• *hileko azkenengo martitzenean, 21:30ean.*

Ezaguna den tarte honi ere eutsiko dio denboraldi berrian GOITBk. Pil-pilean dagoen gai bat hartu eta lau gonbidatuk horren gainean eztabaidatuko dute.

Gaia aurkezteko balioko duen erreportaje batekin hasiko da aldiro saioa eta kale inkesta ere egingo da egun ho-

rretako gaiaren inguruan. Era guztietako iritziak jasotzeko tartea izango da, beraz, "Mahai inguru".

XELEBERRI

• *hileko lehenengo hiru martitzenetan, 21:30ean.*

Unai Iparragirre aski ezaguna da guztiontzat, baina berarekin lanean jardungo duten kideak, ez hainbeste. Iratxe Eguen izango da berarekin batera albistegi berezi honetako gidaria, baina beste zazpi lagunengandik laguntza izango dute: Maier Uranga, Kepa Errasti, Iraia Aginagalde, Jon Tena, Ane Miren Zabala, Igor Larrañaga, Jon Zubiaga eta Eneko Eraña. Hauek denak Debagoieneko herri guztietako kaleetan go-ra eta behera ibiliko dira, GOITBko mikrofonoekin albiste bitxiak iritziak jasotzen. Izan ere, albistegi berezi honek izenburu nagusietara ekarri nahi ditu egunkarietako azken orriko albisteak, alegia, beste albistegi guztietan bigarren mailako kontuak direnak, "Xeheberri"n albiste nagusi izango dira. Eta berri horien gaineko iritziak jasoko dituzte berriemaileek kalerik kale. Horrez gain, asteko berrien errebasoa ere egingo du albistegi honek, baina beti "Xeheberri"ren ikuspuntutik. Eta honi freskotasuna emateko, Eneko Erañak Euskal Herriko famatuei buruzko erreportajeak eskainiko ditu.

Zuzeneko saioa izango da eta etxekoek parte hartzeko lehiaketa ere egingo da. Jokoa oso erraza da: albiste bat aurkeztuko dute eta hiru izenburu emango dituzte aukeran. Lehiakideek izenburu zuzena asmatu beharko dute.

Beraz, aspertzeko astirik ez dugu izango Unai eta Iratxeri esker.



Igor Larrañaga
23 urte
bergararra

Ane Miren Zabala
20 urte
bergararra

Eneko Eraña
26 urte
eskoriatarra

Iraia Aginagalde
20 urte
atxabaltarra

HAMAIKA MAGAZIN

• **eguzero, 21:30ean.**

Heziketa saioa izaten segituko du, iazko denboraldian horrenbeste arrakasta izan zuen saio honek. Baina, berritasun bat izango du: Amagoia Lasagabaster. Atxabaltar honek aurkeztuko dizkigu osasuna, sexualitatea, yoga, lorezaintza eta bestelako kontuak, adituen esanekin batera.


Hotel Mondragoneko platotik egingo du hori. Argazkigintza tartearekin batera, lehiaketa ere egongo da. Ikatz argazki dendak eskainitako argazki kamera reflex bat zotz egingo da.

EKILAN

• **hileko azken**

eguzenean, 21:30ean.

Alberto Gorritiberea ere izango da geurean aurten. Aurreko denboraldian bezala, bailarako jarduera ekonomikoaz arituko da, industriaz eta nekazaritzaz, hain zuzen ere. "Elkarriketa", "Zer egingen da?", "Zer egingen du", "Poltsa" eta



Eguzero, 13:40ean, hainbat sukaldarik errezetak eskainiko dizkigute. Argazkian, Inazio Beldarrain.

"Albistegia" izango dira saio honen atalak. Azken batean, bailaran jarduten diren ekimen ekonomikoen berri emango digu Herri Irratiko esatariak.

SOINUZ BLAI

• **eguzero eta**

eguzakitzero, 22:10ean.

Musika gaztea, musika berria... ez, ez da Euskadi Gazteko iragarki bat. Soinuz Blai saioan ikusi eta entzun ahal izango

duguna da. Miren Gonzalezek kide berri bat izango du, Haika Aizpurua. Biek, ordu erdiz, bideoklipen azken berritasunak eskainiko dizkigute.

JOLASPLAST

• **urritik aurrera.**

Mikel Lizarralde zuzenduko du umeen tartea, baina oraingoan Txatxilipurdikoen laguntza izango du, beraz txatxilistilo bat izango du. Eta horren ardura, Rebeka Torresek izango du. Beraz, umek ere izango dute ondo pasatzeko aukera.

Eta Bergaran, zer?

Goiena Telebista Bergarako hainbat etxetan ikusten da bakarrik, Jardun elkarteak eta Zaiazko elektronika dendaren behin behineko konponbideari esker. Antzuolan, ostera, laister ikusiko da etxe denetan. Bergarako Udalak ez dio oraindik baietza eman Goiena egitasmoari eta beraz ezinezkoa da oraingoz seinalea etxe guztietara helaraztea. Herritar ugari izan dira euren etxeetan GOITB ez ikusteko arrazoia zein den galdetu dutenak. Victoria-no Gallastegi Bergarako alkateak BERRIGARARI adierazi dionez, "talde politiko mailan gaia aztertzen ari gara eta, asko jota, 15 egun barru gure proposamena egingo dugu gobernu baztordean. Presazko gaia denez, lehenbailehen irtenbidea eman nahi diogu honi". Jardunen eta Goienaren helburua da aurki GOITB baldintza onenetan Bergarako zein bailarako etxe guztietara iristea.

GATZA ETA BERAKATZA

• **eguzero, 13:40ean.**

Duda barik, programazio guztiko saiorik gozoena izango da. Iaz hasi zuen ibilbidea sukaldaritzan saio honek, baina aurten Fagorrek espreski gertatutako sukaldean arituko dira Debagoieneko hainbat sukaldari ezagun.

Eguerdiro, albiste aurrerapenaren ondoren, plater bana prestatuko digute gure bailarako jatetxeetako sukaldariek.

Ba, horixe, on egin!<



Hiru bergarar Eskoriatzako nesken saskibaloitaldean

Romera, Belastegi eta Usabiaga 2. maila nazionalean

Maria Romera entrena-tzailea eta **Ana Belastegi** eta **Maite Usabiaga** jokalaria Eskoriatzako taldean ari dira aurten. Joan zen astebukaeran eman zioten hasiera 2. maila nazionaleko ligari, Eskoriatzan, eta Txingudiren aurka galdu egin zuten. **Maria Romeraren** hitzetan, "helburua kategoriari eustea izango da, oso ekipo gaztea baitaukagu".

Maria Romerak 29 urte ditu, eta joan zen denboraldirarte saskibaloian jokatzen aritu da, Bergara, Tolosa, Arrasate eta Eskoriatzako taldeetan. Aurten, belau-nan izandako lesioengatik eta baita motibazio faltagatik ere, jokatzeari utzi eta taldeko bigarren entrena-tzaile izatera pasatu da; "joan zen urtean monitore titulu atera nuen, saskibaloitari lotuta jarraitzearen". Fernando Rasorekin batera, taldeko arduraduna da. Beraz, aurtengo denboraldian, entrena-tzailearen aulkitik jarraitu beharko ditu partiduak; "kantxan eta aulkian desberdin sufritzen da. Aurten oso ekipo gaztea dauka-



Ana Belastegi (argazkian, ezkerrean) eta Maite Usabiaga.

gu, eta kategoriari eustea nahiko zaila ikusten dut".

BERGARAN TALDERIK EZ

Ana Belastegi (21 urte) eta Maite Usabiagaren (19 urte) arabera, Eskoriatzan Berga-

ran baino gehiago bultzatzen da nesken saskibaloia, "hemen baino garrantzi handiagoa ematen zaiolako. Eskoriatzan ez dago mutilen talderik, eta nesken taldeak jarraitzaile dezente ditu".

Debagoieneko talderik indartsuena da Eskoriatzako eta bertan Arrasate, Aretxabaleta, Bergara eta Eskoriatzako jokalaria daude. Bergaran, berriz, ez da nesken saskibaloit alderik aterako aurten, gutxieneko plantila osatu ez delako.

Ana Belastegi (1,76 m.) Bergarako taldean aritu zen iazko denboraldian. Pibot edo alero postuan jokatzen du; "pena da Bergaran talderik ez egotea. Joan zen urtean geundenetatik gutxi nahi genuen jarraitu, eta erreleborik ez dagoenez, taldea desagertu egin da". Maite Usabiaga pibotak (1,81 m.) Eskoriatzarekin jokatzen zuen azken denboraldian. Taldea mailaz jaitsi zen, baina plaza bat libre geratu zenez, kategoriari eutsi ahal izan zioten. Aurten hobeto ibiliko direla espero dute: "gogoia jarritz gero, zerbait egin dezakegu".

Mariak dioenez Maitek eta Anak lan bikaina egin dezakete, saski azpian, batez ere: "biak ere garaiak dira, eta erreboteak hartzeko orduan jokalaria garrantzitsuak. Esperientzia ere badute". Zapatuan, Ligako bigarren partida Donostian.

SANTOS
IRRATI-TB

TELEFONIA MUGIKORRA
• SUKALDEKO ALTZARIAK •
ARGIZTAPENA

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurtzeta 5
BERGARA

☎ 943 76 10 57



PISZINETAKO
TABERNA

Bokadiloak
Pintxoak
Kazuelitak

Boni Laskurain z/g
Tf. 943 76 53 55

Azpilikueta garaile San Martin sarian

Caja Rural taldeko Daniel Azpilikueta txirrindulari nafarrak irabazi zuen domekan jokatu-tako San Martin saria. Helmugan, Azpilikuetak Mario De Sarragari 10 segunduko aldea aterazion. Bergarar onena Jon Mendizabal (CDR) izan zen. Lehendakari Txapelketako irabazlea Olarra taldeko De Sarra-ga asturiarra izan da.



Nesken taldeak Ligako bigarren partida jokatu du zapatu eguerdian.

Nesken taldeak 7-0 irabazi zuen Antzuolan

Bergarako nesken futbol taldea 0-7ko emaitzarekin nagusitu zitzaion Antzuolari, zapatuan, Estalako futbol zelaian jokatu-tako derbyan. Atsedenaldira bost goleko abantailarekin joan ziren aldageletara. Nagore Rico atxabaltarrak egin zuen lehen gola penalti jaurtiketa bati esker eta gainerako golak Maider Birumbralesek (2 gol), Ana Gonzalezek, Uxue Lazkanok, Silvia Valorrek eta Lexeia Larrañagak egin zituzten. Bergarak zapatuan, 12etan, Ipintzan, Debako Amaikak-

Bat taldearen aurka Ligako bigarren partida jokatu du.

Bestalde, Bergarako 2. erregionaleko gizonetako taldeak 2-1 galdu zuen Antzuolan bere debutean. Etxekoak markagailuan aurreratu ondoren, Unai Mendizabalek banakoa egin zuen. Hala ere, partidua amaitzeko 15 minutu falta zirela, Joseba Larrañaga bergararrak antzuolarren garai-penaren gola egin zuen. Bergarak, Urkiren aurka jokatu du bihar, zapatua, 18:15ean Ipintzan.

Kirol medikuntza zerbitzua

Oinarrizko azterketa, esfortzu froga edota lesioen tratamendurako kirol medikuntza zerbitzua zabalik dago. Oinarrizko azterketak Udal biltegian egiten dira eta esfortzu frogak Arrasateko Kiroldegian. Interesatuek Kirol Zerbitzura jo dezakete.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Urki

2. mailako kadeteak
Zapatua. 9:00. Ipintza

Bergara-Antiguoko

Ohorezko kadeteak
Zapatua. 10:30. Ipintza

Bergara-Amaikak Bat

Neskak
Zapatua. 12:00. Ipintza

Bergara-San Pedro

Hirugarren maila
Zapatua. 16:30. Agorrosin

Bergara-Urki

2. erregionala
Zapatua. 18:15. Ipintza

ESKUBALOIA

Senior mailako txapelketa

zapatuan, 17:30etik aurrera, Labegarietako Kiroldegian, El Pilar, Donibane eta Bergara taldeekin.

PILOTA

Baztan (Nafarroa)-San Millan (Araba)

Herri arteko txapelidunen arteko Hego Euskal Herriko finala Gaur, eguakitzan, 19:00etan Udal Pilotalekuan.

Bergara-Amezketan

Lehen mailako seniorren Gipuzkoako txapelketa. Aurreko hiru partidak amaitu ondoren jokatu du.

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295


Astebukaeretan eztakizula zer eñ?

11 urte baino gehixau baldin badaukazu,
kartzela zaharrian
primerako aukeria daukazu. Zatoz!

Aurten sorpresak
egongo die!


Zapatu eta domeketan
arratsaldeko 4retatik 8retara

antolatzailea:



943 76 36 61

Eskulanak
Jolasak
Irteerak
Akanpadia
Hizketan
eitteko txokua...



GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro 8

Tf.: 943 76 27 70

BERGARA



Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Errotagain-Bildurbarek	6-6
Amoskibar-Irubide jatetxea	5-3
Torrekua-Bar Ugarte	2-10
Buya-Apa Oxemai	4-4
Eri-Pagomendi	4-3

B MULTZOA

Pinturas Bergara-Tom Cat	4-5
Agirrebeña-Kanpazar	1-3
Aterpe-Vacalouras	5-4
Ortzi-Manitou	4-1
Amilox-Suntsizailleak	3-0

C MULTZOA

Mongatxurak-Mo(ko)lotov	4-3
Artusamak-Ezinleike	13-1
Txipiron-Patxaran Team	6-2
A Ze Flaxa-Latex	17-2
Guadalest-Shaktale	8-2

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

9:30: Bildurbarek-Eri	Ezinleike
10:30: Ezinleike-Mongatxurak	Suntsizail.
11:30: Suntsizailleak-Aterpe	Apa Oxemai
12:30: Apa Oxemai-Fac	Aterpe

ZAPATUAN KANPOAN

16:00: Patxaran Team-A Ze Flaxa	Bar Ugarte
17:00: Bar Ugarte-Amoskibar	Vacalouras
18:00: Vacalouras-Ortzi	A Ze Flaxa
19:00: Latex-Artusamak	Ortzi

DOMEKAN BARRUAN

9:30: Irubide jatetxea-Buya	Bayer
10:30: Bayer-Amilox	Pagomendi
11:30: Pagomendi-Torrekua	Canalejas
12:30: Bar Canalejas-Erotagain	Torrekua
16:00: Tom Cat Argandolas-Etengabe	Kanpazar
17:00: Kanpazar-Pinturas Bergara	Manitou
18:00: Manitou-Agirrebeña	P. Bergara

ARGI!

Lehen zigorra

Kanpazar Harrobia taldeko Unai Urrutia jokalariai lau partiduko zigorra ezarri dio Antolaketa batzordeak lehen jardunaldiko partiduan epailea iraintzeagatik. Antolaketak jokari guztien kolaborazioa eskatzen du zigorrik ez izateko.

Emaiza antzerakoak

Nahiz eta aurten atezaina eta lau jokalaria kantxaratu, ez da aldaketa handirik izan joan zen denboraldiko markagailuekiko. Jokalari bat gutxiago izanda, partidua ikusgarriagoak izatea lortu nahi da.

A Ze Flaxa, Erotagain eta Bildurbarek

Iaz sailkapeneko goialdean jibilitako taldeek emaitza onak lortu zituzten. Erotagain eta Bildurbarek Opel Lam taldean arteko partidua 6na bukatu zen.



GORA eta BEHERA



Torrekua, Ezinleike eta Latex

Latex taldeak jaso zuen lehen jardunaldiko goleadurik handiena (17-2). Ezinleike eta Torrekua taldeek ere hasiera txarra eman zioten Ligari.

SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	3	1
2. Amoskibar	3	1
3. Eri	3	1
4. Erotagain	1	1
5. Bildurbarek Opel Lam	1	1
6. Buya	1	1
7. Apa Oxemai	1	1
8. Irubide jatetxea	0	1
9. Pagomendi	0	1
10. Torrekua	0	1
11. Bar Canalejas	0	0
12. Fac	0	0

B multzoa

	P	J
1. Amilox	3	1
2. Kanpazar harrobia	3	1
3. Tom Cat Argandolas	3	1
4. Aterpe	3	1
5. Ortzi	1	1
6. Manitou	1	1
7. Pinturas Bergara	0	1
8. Vacalouras	0	1
9. Agirrebeña jatetxea	0	1
10. Suntsizailleak	0	1
11. Bayer	0	0
12. Etengabe	0	0

C multzoa



	P	J
1. A Ze Flaxa	3	1
2. Artusamak	3	1
3. Guadalest	3	1
4. Txipiron	3	1
5. Mongatxurak	3	1
6. Mo(ko)lotov	0	1
7. Patxaran Team	0	1
8. Shaktale	0	1
9. Ezinleike	0	1
10. Latex	0	1
11. Komando Piperrak	0	0

Informazio hau babesle hauei esker:

OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



Irizar 2
943 76 14 95

**JAUJA
KIROLAK**

Otsein Saria

Sailkapen orokorra:

Ander Berraondo	3 puntu
Josetxo Lizarralde	3 puntu
Arkaitz Arana	3 puntu
Markel Egaña	2 puntu

Etxeko partidua bakarrik hartzen dira kontuan.




ARKAITZ ARANA
BKEko jokalaria

Aurtengo denboraldiko lehenbiziko partidua galdutuen domekan Las Llanasen, Sestao taldearen aurka. Joan zen denboraldian bezala, aurretik jarri ginen markagailuan Igor Errastik sortutako golari esker, baina ezin izan genion abantailari eutsi. Egia esan, Sestaoko zaletuek zerikusi handia izaten dute, partidua osoan zehar asko animatzen dutelako. Bisitariak presio handia jasan behar izaten dute.

Domekako partiduan, lehenbiziko zatian, epaileak txartel hori gehiegixko erakutsi zizkigun, eta atsedenaldira heldu aurretik beraiek berdinketa lortu zuten. Lehen zatia nahiko berdintsua izan zen, baina bigarrenan beraiek dominatu zuten, eta gol aukera onenak izan zituzten. Bigarren gola egin zuten, eta guk, ostera, ez genuen arrisku gehiegirik sortu. Emaitza justoa izan zen, nire ustez.

Ligari uste baino hasiera hobea eman diogu, eta ea bolada onari eusten diogun. Etxeko partiduetan ezin dezakezu hutsik egin.

GASTON Y DANIELA



Kruz Gallastegi 3 ☎ 943 76 07 37

BERGARA


Inglesina



Banatzaile ofiziala

Samadhi yoga

YOGOTERAPIA ETA ERLAJAZIOAREN ZENTRUA



- Edozein adinetarako
- Gaztetxo, gizon eta emakumeentzat
 - Jubilatuendako prezio bereziak
 - Goiz eta arratsaldez
- Lorik egin ezina, tentsioa, estresa, depresioa eta abar eragozten ditu
 - Birika, hezur, nerbio-sistema, zirkulazio, bizkarrezur eta gorputz osorako oso onuragarria

Kruz Gallastegi 2, behea. Tf. 639 235 753 / 943 76 11 38

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Pisua herri erdialdean.
646 305 349 /
636 794 761.

Matxiategi.
943 76 11 01.

Barrenkalea.
656 732 026 (egunez)
edo 943 35 39 91 (gauzez).

Barrenkalea.
943 76 44 34.

Aranerreka. Jantzia.
75 m². 629 655 195.

Zubieta. 646 516 192.

Pisua garajearekin, Ara-
nerrekan. 943 76 07 77.

EROSI

Baserria erosiko nuke
Bergaran. 943 18 77 57.

Etxea erosiko nuke Ber-
garan. 943 76 38 25.

Herri erdialdeko lehen
solairu bat edo etxabea
erosiko nuke.
609 413 211
(20:30etik aurrera).

ERRENTAN EMATEKO

Jantzitako pisua alokai-

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen.
Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

ruan laga nahi nuke
Bergaran. 653 712 251.

Fraiskozuri. 943 76 15 40.

Etxeko logelak aloka-
tzen ditut. 943 76 43 95.

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua alokairuan hartu-
ko nuke. 678 212 657.

Pisua hartuko genuke
alokairuan Bergaran.
696 782 176 (Loli) edo
630 712 318 (Marta).

Etxea alokatuko nuke.

Jantzia. 90.000 pta.
arte ordaintzeko gertu
nago. Presazkoa da.
649 790 901.

Etxea alokatu edo ero-
siko nuke Bergaran edo
inguruan. 94 446 43 84
/ 659 506 679.

ETXE KONPARTITUAK

Pisu bila dabilen neska
bat naiz. Alokairuan
daukazu pisua osatze-
ko lagun baten beharre-
an bazaude, deitu
iezadazu 20:00etatik
aurrera. 656 773 637.

2. GARAJEAK

SALDU

Aranerreka. 943 76 24 84.

ERRENTAN EMATEKO

Santa Marina.
Deitu 943 76 37 69
telefonora.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea edo lokal
komertziala hartuko
nuke alokairuan, 40-60
m²koa. 646 673 204.

3. LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

Lokala alokairuan herri
erdian. 120 m².
617 025 376.

Koldo Eleizalden, be-
hea, 50 m². 943 76 37 69.

4. LANA

ESKAITZAK

Emakume edadetuak
zaindu eta etxeko lanak
gingo nituzke.
943 76 06 92 (Amaia).

Garbiketak egiten lan
gingo nuke.
Deitu 943 76 53 18
telefonora.

Arratsaldeetan umeak
zainduko nituzke.
943 76 13 46.

Umeak zaintzen edo
antzeko zerbituetan lan
gingo nuke.
Deitu 943 76 00 90
telefonora.

Tabernan, tailerrean
edo dendan lan gingo
lukeen 35 urteko mutila
naiz. Esperientzia.
Informatika ezagutzak.
610 972 250 (Antxon).

Geriatrian espezializa-
tutako klinika laguntzai-
leak zaharrek edo gai-
soak zainduko lituzke.
Deitu 609 770 133
telefonora.

Neskak garbiketa lanak
gingo lituzke jatetxe
batean. 639 936 841.

Umeak zainduko nituzke
uztailetik irailera bitar-
tean. 943 76 39 91.

ESKAERAK

Neska behar da umeak
arratsalde zaintzeko.
943 76 07 69.

Neska behar da goize-

Euskara errefortzuetarako boluntarioak

Jardun elkarteak euskara errefortzuetarako begirale boluntarioak behar ditu.

EGINKIZUNAK

Astean zehar ikastetxeetan haurrekin lan egin.

AGIRIAK

Ikasturtearen buruan agiriak banatuko zaizkie boluntario denei.

ABANTAILAK

Jarduneko lan poltsarako puntuak jasoko dituzte aurkeztutako boluntarioek.

Interesatuok, eman izena Jardunen.
Kartzela zaharra, Juan Irazabal z/g
943 76 08 19



Irakasleak:

Panderoa: Aitziber Gezalaga
Soinua: Eider Zubillaga

Noiz:

urriaren 2an hasi eta
ekainaren 23an bukatu

Non:

Kartzela zaharrean

Trikiti eskola



Egunak:

Panderoa: Astelehen eta
egukitzetan,
16etatik 21etara
Soinua: astelehen eta
eguztenetan, 17etatik 21etara;
zapatueta, 9etatik 14etara

Prezioa:

Panderoa: 1.900 pta. hilean
Soinua: 2.650 pta. hilean



tan umeak ikastolara eramateko.
943 76 58 77 (gauzez).

Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. 943 76 28 05 / 33 27.

Antzuolan, pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Deitu 943 76 61 04 telefonora.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Ingeles klaseak ematen ditut. 649 577 059 (18:00etatik aurrera).

Ingeles klaseak ematen ditut. Esperientzia. 943 76 30 28 / 659 331 741 (Ana).

Klase partikularrak ematen ditugu. 943 76 31 31 (Juanma) edo 943 76 42 08 (Nere).

Alemaniera klaseak ematen ditut. 943 76 91 33 / 93 74 (Idoia).

LH eta DBHko 1. ziklorako eskola partikularrak ematen ditut. Deitu 943 76 39 61 telefonora.

ESKAERAK

Conta Plus klaseak hartuko nituzke. Deitu 943 76 27 51 telefonora.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Opel Corsa (SS-BB). 15.000 km. 943 79 27 30.

Fiat Uno (SS-AG). 105.000 km, 200.000 pta. 600 289 443.

Audi A4 berria. Deitu 943 76 02 08 telefonora.

VW Polo Diesel (SS-AX). 609 541 613.

Kawasaki Volcan 800 motoa salgai. 900.000 pta. 943 77 08 69.

Opel Corsa (SS-AM). 943 76 52 31 (gauzez).

Opel Kadett 1.6S (VI-K). Berunik gabe. Egoera ona. 200.000 pta. 619 149 730.

Kawasaki ZZR 600 motoa. Egoera ona. 667 200 768.

Opel Kadett (SS-AL). 667 088 484.

Kawasaki GPZ 500 motorra. Egoera ona. 943 76 71 21.

7. ANIMALIAK

SALDU

Hiru urteko pointerra. 943 76 40 03.

Boxer eta cocker txakurkumeak. Pedigriduak. 696 05 73 46.

Sei hilabeteko hispaniel arra, 11 hilabeteko setter ingeles emea eta urte eta erdiko pointer emea. 943 76 37 70.

Katu persiarrak, 2 hila-betekoak. Prezio ona. 943 76 33 58 (Natalia).

BESTELAKOAK

Bi urteko katu siamesa operari, ezin dudalako zaindu. 943 76 39 95.

8. DENETARIK

SALDU

Adria karabana, 4 lagunendako. Oso egoera onean. 943 76 56 84.

Erremolkea. Oso merke. Deitu 943 76 12 01 telefonora.

Tronpeta berria. 943 78 70 52.

Genio 2000. Prezio ona. Deitu 943 78 70 52 telefonora.

Ileapaindegiko altzariak eta materiala. Merke. 943 76 25 38.

Lasterketetako bizikleta. Prezio ona. 943 76 23 68.

Marrazteko mahaia eta aulkia. 943 76 41 96.

EROSI

Bigarren eskuko umeendako kotxea erositako nuke (bikintzat). 677 367 733 (Irika).


GALDU

Rip Curl motxila urdina galdu dut Seminarioan. 943 76 34 34 (Julen).

Zilarrezko txintxirrina "Unai, 5.10.99" inskripziozuna. 943-76 50 39.

AURKITU

Gizonezkoen erlojua topatu nuen irailaren 25ean igerilekuetatik gertu. 943 76 20 36 (Kontxi).



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

PROGRAMATZAILEA / DISEINATZAILEA
Ibai eskumaldea. 38045/4

ENPRESA ADMINISTRAZIOARAKO IRAKASLEA
Bilbo. 38099/1

ASEGURUETAKO KOMERTZIALA
Bilbo. 38104/1

PROIEKTU GESTOREA
Bilbo. 38109/3

ESPORTAZIOARAKO KOMERTZIALA
Debabarrena. 38290/2

ADMINISTRARIA
Bilbo. 38304/3

ELEKTRIKARIA EDOTA ELEKTRONIKOA.
Lanbide Heziketa II Basauri. 38320/3

DELINEATZAILE PROIEKTISTA
Araba. 38472/1

MEDIKO ESTETIKOIA
Araba. 38528/2

FINANTZA AHOLKULARIA
Araba. 38556/1

MEKANIKOA
Goierri. 38571/2

OSASUN ARLOKO IRAKASLEA
Bilbo. 38577/4

INGENIARITZA IRAKASLEA
Gasteiz. 38652/2

AUTOCAD IRAKASLEA, 2D edo 3D
Bilbo. 38704/1

AUTOBUS GIDARIA
Urola Garaia. 35537/3

ESTETIZISTA
Urola Garaia. 36112/6

GOI MAILAKO ZIKLOA INDUSTRIA ARLOAN, 4
Urola Garaia. 36377/4

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizue, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakizetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

JOXAN
ARRAINDEGIÀ



Ibargarai 24
Tf. 943 76 70 29



Tabernarako SUKALDARIA
behar da.
Esperientzia ez da beharrezkoa
943 76 71 19

Martxan dagoen TABERNA
alokairuan
943 76 23 66
656 772 291



gizon & emakume
Barrenkalea 35 BERGARA

EKONOMI EDO ENPRESA ZIENTZETAN DIPLOMADUN BAT KONTRATATU BEHAR DA BEHIN-BEHINERAKO

Diruzaintza eta kontabilitate orokorreko lanak egiteko Ekonomi edo Enpresa Zientzietan diplomadun bat kontratatu behar da behin-behinerako.

Instantziak eta dokumentazio osagarria urriaren 4ko 15:00ak baino lehen Debagoieneko Mankomunitatean aurkeztu beharko dira.

Debagoieneko Mankomunitatea:
Arrasate pasealekua 5, behea.
ARRASATE.
Tf. 943 79 33 89 /99.



Donostiako Orfeoiak kontzertua emango du Udazken Kulturalaren barruan

Urriaren 6tik abenduaren 24ra bitartean hainbat ekitaldi izango da herrian

Datorren eguakitzean, urriak 6, hasiko da Udazken Kulturala. Hiru hilabetez zehar, hainbat kultura ekitaldiz gozatzeko aukera izango da. Aurten, ekitaldi aipagarri gisa, Donostiako Orfeoiak kontzertua emango du urriaren 28an San Pedron.

Antzerkia, musika, hitzaldiak, erakusketak... Udazken Kulturalak hainbat arlo jorratuko ditu urri, azaro eta abenduan. Urriaren 6tik abenduaren 24ra zabalduko da, eta Txalo antzerki taldearen "Dama eta Kardinala" antzezlanak irekiko da urriaren 6an Novedades aretoan gaueko 22:30ean.

Urriaren sei emanaldi emango ditu Udazken Kulturalako egitarauak: Easo abesbatzaren Kapera Gregorianoaren kontzertua, monja klarisatarren elizan urriaren 7an; Jonathan Ritchman eta Niños Mutantesen kontzertua Jam aretoan urriaren 20an; "Eunate" Josetxo Goia-Arriberen kontzertua Udaletxeko pleno aretoan hilaren 21ean; Udal Musika bandaren kontzertua Udal pilotalekuan 22an; Gipuzkoako zuhaitz eta zuhaixken herbarioa eta Juan Manuel Boteren pintura erakusketa, Kultura Etxean; Edu Muruamendiaren "Aukeran" dantza koreografia, eta Donostiako Orfeoiaren kontzertua.



Donostiako Orfeoia, urriaren 28an San Pedro parrokian.

JUANTXO EGAÑA

ografia eskainiko du. Dantza ikuskizun hau urriaren 20an izango da, Udal Pilotalekuan, eta San Joxepekin antolatu du bere hamabostaldi kulturalaren barruan.

Donostiako Orfeoia urriaren 28an izango da San Pedro parrokian, iluntzeko 20:00etan, eta doan. Orfeoia emango duen kontzertuak bi atal izango ditu, eta lehenengoan Jose Manuel Azkue organu jolearen laguntza izango du.

Azaroan honako ekitaldiak egongo dira: Teatro Topo antzerki taldearen "Ezustekoa" lana, Novedades aretoan; Deba eta Zumaiako Musika Bandaren kontzertua, Udal Pilotalekuan; Santa Zeziliako kalejira Udal Txistulari Banda eta Udal Musika Bandarekin; Eustaquio Agirreolea pintore eta argazkilaria inguruko erakusketa pleno aretoan; Jardunek antolatutako bertso-trama San Martzialgo

erromeriaren inguruan, eta Julia Leonen musika sefardi kontzertua.

Abendurako honako ekitaldiak antolatu dira: "Errenteria musikal" ganbara orkestraren kontzertua, Kukubiltxo antzerki taldearen "Txirikiz" lana, Gabonetako kontzertua eta Martzial Agirrerren mendeurrena ospatzeko erakusketa.

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artetale 6 Tf.: 943 76 13 29

Punk jaialdia: 100 musiko, 1.200 entzule eta hotelak beteta

Joan zen domekan amaitu zen "Holidays in the sun" kontzertua Jam aretoan. Egua-kitzetik domekara arte, punk-rock egiten duten hogeita bost taldek jo zuen Jamen. Antolatzaileak pozik daude orokorrean jaialdiak izandako harerarekin, nahiz eta egun bakoitzeko berrehun bat lagun gehiago espero zituzten. Asteburu osorako sarrera 450 pertsonak erosi zuten. Kopuru horri eguakitzeko eta domekako beste 200 lagun gehitu behar zaizkio, eta zapatuan beste 350.



HAINBAT HERRIALDETA JENDEA

Bestalde, atzerritik 400 lagun inguru hurbildu dira Bergarara; hauetako 100 musikoak. Atzerritik etorritako gehienek Bergara zein inguruko herrietako hotel, ostatu eta nekazal turismo etxetan hartu dute ostatu. Horrez gain, antolatzaileek Narbaiza lantegiko atzealdeko soro batean kanpinga egokitu zuten, eta bertan beste 150 lagun inguru egon dira. Kanpingeraino joan gabe, Goiko estazioan kanpatu duenik ere izan da.



Punk estiloa jantzietan, orrazkeran... eta supermerkatuko karroan.

erreseinak



Txiliku
101 gau
Eleberria

Eguneko lanak amaituta, irudimena libre utzi du Txilikuk, gauaren eritimo lasaian kontu-kontari aritzeko eta, Xerazade berri bat balitz bezala, 101 gauetan zehar beste horrenbeste istorio asmatzeko. Erudizioz nahiz ironiaz jantzia, baina beti arin eta jostari, irakurlea liluratu eta limurtu nahi du egileak, beste gau bateko bizia lortzeko, liburuarekiko harreman maitakor hori luzatzeko. Era guztietako gaiak eta osagaiak dauka liburu pertsonal eta berezi honek.

- Elkarlanean. 221 orr. 1.950 pta.



Bide Ertzean
Grisa
Rock

Tolosako taldearen hirugarren diskoa dugu atzo, eguena, Bilboko Kafe Antzokian aurkeztutako Grisa. Eurak sortutako hamahiru abestik eta taldeak dantzan jarri duen Iñigo Aranbarriren testu batek osatutako bilduma da. Bide Ertzean sakon murgildu da rock-aren bihotzean, melodiari uko egin barik hala ere, baina biguinkeriatan jausteko arriskuari muzin eginda. Diskoa grabatzeko kolaborazio aparta izan dute tolosarrek: Xabi Etxakit, Gorka Berri Txarrak, Alos hari-laukotea eta Mikel Erentxun, hain zuzen ere. Bestalde, Fran Iturbe bergararraren gitarra doinua ere hor da Bide Ertzean taldeak sortutako hitzak janzteko.

- Gaztelupeko hotsak. 2.000 pta.

izeder

ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak

943 76 71 05. Arruriaga 2



Matxiategi
Elektragintza
S.L.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.



Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Eginbeharra. 2. Atabal jolea. 3. Loreak eman. Rödengen. Kontsonantea. 4. Iridioa. Oso txikiak. 5. Betekada. Potasioa. Trafiko seinalea. 6. Kizkurak egin. Oxigenoa. 7. egina, zeharo horditua. Meatzea. Kriptona. 8. Bostehun. Hitz. Ez on. 9. Likido zuria. Mendi apal. 10. Arabako herria. Guraso arra.


Goitik behera

1. Balio berekoa. 2. Atzerritik etorririko langile. Musika nota. 3. Jatorri atzizkia. Azkenekoa. 4. Bizkaian, zuen. Kontsonantea. Pinu mota. 5. Katuaren ume. Bokala. 6. Beltz. Musika nota. Mila. 7. Zamorako autoetan. Taberna. 8. Hautsi. Hamabi. 9. Naizen hau. Errepikatuz, fruitu mota. Filosofo alemaniarra (1724-1804). 10. Suitzako ibaia. Haxix zigarroa.

Soluzioa

10. Porroa.
8. Urratu. XII. 9. Ni. Ko. Kant.
Re. M. 7. Za. Ostata.
ler. 5. Katakume. A. 6. Ilun.
3. Tar. Azkena. 4. Eban. K.
1. Baloikidea. 2. Etorrin. Si.
Goitik behera
10. Aitara. Alta.
Txar. 9. Esne. Muno.
7. Ink. Mea. Kr. 8. D. Ele.
5. Oka. K. Stop. 6. Kizkurtu. O.
3. Loretu. R. R. 4. It. Nanoak.
1. Betekizuna. 2. Atabakana
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar




Zein irudi dago XVI. mendeko eliza honen plateresko tankerako ate gainean?


galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

- Udal hauteskundeetan zein postutan zegoen Garai, PSE-EEko zinegotzi berria?
A- Bigarreanean
B- Bosgarreanean
C- Laugarreanean
- Zein izen dauka GOITBko sukaldaritza saioak?
A- Sukaldeen
B- Gatza eta piperra
C- Gatza eta berakatz
- Nork irabazi du aurten txirringularitzako Lehendakari txapelketa?
A- Azpilikuetak
B- De Sarragak
C- Mendizabalek



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Agustin Iñarrarentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Agustini! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Zubieta kalea / Maria Paz Alustiza** Galde Debalde: **1-B, 2-B, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Blu
komuneko papera, 6 errollu
100 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Espoloko Ostadar illeapaindegixa dauka Nagorek orain dala pare bat urtetik Idurre bere lagunarekin batera. Gizurra emoten badau be, illeapaintzailia izan arren, ez ei da presumidia 25 urteko bergarar hau.

Ille luzia ala motza nahixago?

Motza, orain luzia daukat, baiña egixa esan motza nahixago.

Zer dago modan gaur egunian?

Danetik; bakoitzak erabagitzen dau. Ez dago modarik ille kontutan.

Kresta bat egin dozu sekula?

Gai izango ziñake?

Ba, bai; Eskoriatzako illeapaindegi batian lan egitten nebanian kresta rubixo bat egin notsan bati.

Emakumiak ala gizonezkuak dira presumiduaguak?

Oraindik be emakumiak, baiña gizonezkuak be gero eta presumiduaguak die.

Burusoiltasunari aurre egitako metodorik badago?

Bai; pasatzen dana da tratamentua serixo hartu bihar dala, eta egunero emon.

Ze pertsonaje ezaguneri aldatuko zontsake orrazkeria?

Albako dukesiari, ille lotsagarriak erabiltzen ditte.

Zer egingo zontsake, ba?

Ganoraz orraztu, emakume horrek orrazten be ez daki eta.

Eta illia estiluakin erabiltzen daben famoso bat?

Kludio Landa, eta baita Lola Herrera aktorea be.

Illeapaindegixak ei die

txutxumutxuen berri eukitzeko tokirik aproposenak...

Nagore Irazola

Gizur mortala da hori. Idurre eta ni, behintzat, azkenak izaten gara kontuen berri izaten.

Aldizkari larrosak irakurtzeko ohiturarik badaukazu?

Ez, ez dittut irakurtzen, asko jota begiradaxo bat botatzen jet.

Presumidia izango zara, ezta?

Ba ez, orain arte ez, baiña illeapaindegixa daukatenetik gero eta gehixago.

Ze hobby daukazu?

Bidaiatzia eta igerixan egittia gustatzen jat; hala be, gutxi juten naiz pizinetara, ez daukat eta denborarik.

Egin dozun bidaiarik polittena?

Ikasturte baten bukaeran Europa aldera egin giñuana

Zela definituko ziñuke zeure burua?

Oso alaia naiz, eta berriktan be asko egitten dot.

Bestiengan zer da gehixen apreziatzen dozuna?

Momentu txarretan lagun egitako prest egotia, bestela edozein hartu leike laguntzat.

Nahikua diru eduki ezkeru, zer egingo ziñuke?

Bizi; baiña noizian behin lan be egingo neuke, asko gustatzen jat eta nere lana.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

Kizkur

Ileapaindegia
Estetika
Solariuma



Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32



Gozogintzan
aintzindari.



Futbolean Agorrosinen, 1970

Duela 30 urte Mariaren Lagundian ikasten ari zen neska talde batek ikasbidaiaren aldeko futbol partidua jokatu zuen Agorrosingo futbol zelaietan. Argazkiko neskek 16-17 urte izango zituzten orduan, eta Lanbide Heziketako institutuan (gaurko Miguel Altunan) ikasten ari ziren mutilen aurka jokatu zuten. Hamaika jokalaririk izan beharrean, 22 mutil zelairatu ziren, baina bikoteka, elkarri lotuta, jokatu behar izan zuten. Jasotako informazioaren arabera, neskek nagusitu ziren. Zelaiaren egoera ikusita, ez zen batere erraza izango lokatzetan moldatzea...

Aretxabaletan ere beste partidua bat jokatu zuten bi taldeek, ikasbidaiarako dirua batzeko asmoz. Honako hauek dira argazkikoak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Irune Iribekanos, Itziar Mendizabal, Rosarito Olabarria, Marili Alvarez eta Arrate Areitio.

Makurtuta: Olatz Elorza, Rosarito Zabaleta, Juanita Agirrezabal, Elisabet Arrieta eta Rosa Montejo.

Argazkia: BUA. Roman Larrañaga fondoa.

— disdira — OHARRA

Gure bezeroei oharra:
Berritze lanak direla eta,
urriaren 3tik aurrera
Masterreka 24an
egongo gara,
betiko lekuaren parean.
Barkatu eragozpenak.
Tf. 943 76 00 55



**SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK**

AGENTEA

Ramon Maria Lili 6, behea
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54
Faxa: 943 76 41 54
ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera:
9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00



**IRAEGI
ASEGURUAK**

Multiofertas



Heldu dira Multieskaintzak.
Familia osoarentzat.

Bonardi bilduma

3.800 pta.n
22,84 €



Haurrentzako betaurrekoak

8.900 pta.tik aurrera
53,49 €



60 urtetik gorakoentzako betaurrekoak

8.900 pta.tik aurrera
53,49 €



Lente progresiboak

19.500 pta.tik aurrera
117,20 €



www.multiopticas.com

Eskaintza honek 2000/10/31ra arte balio du. *Eskaintza honek lente zurientzat balio du +/- 2ko ZIL.

R.A.S. N° 16499

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA

INGELES A FRANTSESA ALEMANA

**2000/01 IKASTURTERAKO
MATRIKULA ZABALIK**
Ikasturtearen hasiera urriaren 2an

- Filologian lizentziatutako irakasleak, natibo kualifikatuak eta esperientziadunak
- Talde txikiak
- Maila guztiak
- Goizez, eguerdiz eta arratsaldez
- Umeendako hasiera-ikastaroak:
6 urtetik aurrera
- Gazte eta nagusientzat
- Azterketa ofizialen prestaketa
- Hiru hilabeteko ikastaro intentsiboak
- Ikastaro trinkoak larunbat goizetan

STONE HOUSE HIZKUNTZAK

HELBIDE BERRIA

Tel.: 943 76 06 87

**UNEDetik
Ibargarai 18ra
aldatu gara**





GUIPUZCOANA

EURO EXPRESS

BERGARA

Tel.: 943 76 36 42

Faxa: 943 76 54 25

San Juan auzoa z/g

20570 Bergara

PAKETERIA ZERBITZU
EGUNEROKOA

- *Europako
Elkartea*
- +
- *Suitza*
- *Norvegia*
- *Polonia*
- *Hungaria eta*
- *Txekiar Errepublika*

Deutsche Post  World Net

MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE



www.guipuzcoana.com